



Signa,

Eredu pedagogikoa



Nazioarteko Sarea
Eskolak Maria Gure Andreamen Lagundia





2021
Lestonnac edizioak

xxx-k inprimatzen du

Portada barnizatua: Cyclus Offset
300 g
Paper birziklatua 100%
kloro gabekoa: Cyclus Offset 115 g

Diseinu eta maketazioa:
www.dosmasdos.info

Lege-gordailua ISBN:
xxx

Aurkibidea

Aurkibidea	4
Aurkezpena	7
Sarrera	9
1. Mariaren Lagundia Ikastetxeen sustraiak eta zentzua	13
1.1. Misioa, ikuspegia eta balioak	15
1.1.1. Misioa	15
1.1.2. Ikuspegia	15
1.1.3. Balioak	15
1.2. Iturriak eta sustrai historikoak	16
1.3. Printzipio filosofiko eta pedagogikoak	18
1.4.1. Testuinguruan jarritako hezkuntza	18
1.4.2. Pertsona ikastetxean	19
1.4.3. Formakuntza etikoa, balioak, gizarte-erantzukizuna eta ekologia integrala	19
1.4.4. Formakuntza espirituala eta fedearen ingurukoa	20
1.4.5. Kalitatezko hezkuntza, bikaintasunaren bidea	21
1.4.6. Komunikazioa eta laguntza	22
2. Mariaren Lagundiaren eredu pedagogikoa: hezkuntza pertsonalizatua	23
2.1. Hezkuntza pertsonalizatua: kontzeptualizazioa	26
2.1.1. Ikaskuntza pertsonalizatua	28
2.1.2. Hezkuntza-estilo pertsonalizatzailea	29
2.2. Hezkuntza pertsonalizatuak gaur egun dituen konpromisoak Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoan	31
2.3. Hezkuntza-komunitatearen osagaien rola, kokalekua eta jarrera	34
2.3.1. Ikaslea	34
2.3.1.1. Ikaslearen irteerako profila	35
2.3.2. Irakaslea	37
2.3.3. Familia	38
2.3.4. Hezkuntza-komunitatea	39
2.4. Ezaugarriak	41
2.4.1. Ikaskuntza esanguratsua, globala eta holistikoa	41
2.4.2. Mundura irekitako ikasgelak	43
2.4.3. Hezkuntza konpetentziala	44
2.4.3.1. Pentsamendu konputazionala, gaitasun digitalak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera arduratsua	45
2.4.4. Hezkuntza-prozesuaren laguntza	45
2.4.4.1. Ekintza tutoriala	46
2.4.5. Ebaluazio pertsonalizatua	47

2.4.6. Ikasleen talentuaren garapen optimoa	49
2.4.6.1. Talentua garatzeko ikastetxeak	49
2.4.6.2. Ikasketa plan pertsonalak	50
2.4.7. Inklusioa eta aniztasunarekiko arreta	50
2.4.7.1. Ikasleen taldekatzea	51
2.4.7.2. Espazioen antolaketa	51
2.4.7.3. Denboraren antolaketa	52
2.4.7.4. Material eta baliabide didaktikoen antolaketa	52
2.4.7.5. Curriculumaren malgutasuna	52
2.4.8. Ikasten ikasteko metodologia aktiboak	53
2.4.8.1. Ikaslearen eta gaitasunen garapenean oinarritutako teknika didaktikoa	55
2.4.8.2. Erabilitako hainbat metodologia aktiboren funtsezko alderdiak	57
2.4.8.2.1. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (POI)	57
2.4.8.2.2. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza (AOI)	58
2.4.8.2.3. Erronketan oinarritutako ikaskuntza (EOI)	58
2.4.8.2.4. Ikaskuntza esperientziala	59
2.4.8.2.5. Diseinu-pentsamendua (Design Thinking)	59
2.4.8.2.6. Pentsamendu bisuala (Visual Thinking)	60
2.4.8.2.7. Ikaskuntza kooperatiboa (IK)	60
2.4.8.2.8. STEAM	61
2.4.8.2.9. Talde-lana	61
2.4.8.2.10. Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza (POI)	62
2.4.8.2.11. Ikaskuntza-laboretegiak	62
2.4.8.2.12. Mugimenduan oinarritutako ikaskuntza	63
2.4.8.2.13. Gamifikazioa	63
2.4.8.2.14. Zerbitzu-ikaskuntza	64
2.4.8.2.15. Kontuan hartu beharreko beste metodologia batzuk	64
3. Ikastetxeetan eskaintzen den zenbait proiektu	67
3.1. Kulturarteko Heziketa	69
3.2. Proiektu linguistikoa eta eleanitza	69
3.3. Hezkuntza emozionalaren proiektua	70
3.4. Ekintzailatza eta gizarte berrikuntza proiektua	71
3.5. Eskolaz kanpoko jardueren eta ingurunearekiko harremanaren proiektua	72
Oharrak	73

Aurkezpena

Proiektu bat dagoen lekuan zentzua dago, eta proiektu zentzudun bat dagoen lekuan etorkizuna dago. Mariaren Lagundia Erakundeek laurehun urte baino gehiagoz denboraren froga gainditu duen Proiektu bat dute, une historiko ezberdinak eta kultura ezberdinak ezagutu dituen. Zentzua hezte da eta, Joana de Lestonnacen hitzetan, “gero eta hobeto egitea”¹. Horregatik, gaur Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoa aurkezten da.

Ereduak bildutako esperientzia darama bere geneetan eta, funtsa galdu gabe, gizarteek eta munduak aurkezten dizkiguten erronkei aurre egiteko aberasten duten ekarpenei ongi etorria eman die. Nola ez, bestela, pertsona jartzen du ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuaren erdigunean. Hezkuntza Pertsonalizatuaren aldeko apustua egiten du, nahiak zabaltzeko gai den ikuspegia, itxaropenen horizontea irekiz, urrunago joateko behar den energia emanez... Nortasun osasuntsu eta sendoak eratzea ahalbidetzen duena, besteekin eta sortutako guztiarekin loturak sortzeko gai direnak, eta errealtatea hobetzeko gai.

Bere formulazioa herrialde desberdinetako hezitzaile erlijioso eta laikoen arteko ezagutza eta esperientziak elkartrukatzearen emaitza da. Eraikuntza kolektibo bat, gure ikasleak, mundu global eta kulturarteko baten herritarrak direnak, hezi nahi ditugun zenbait balio praktikan jarri dituen: irekitasuna, malgutasuna, lankidetzeta, kooperazioa, konpromiso komuna...

¹ Documentos Fundacionales 1605-1638, ODN 1. Roma, 1976. Fórmula de las clases, III. kap., 142. orr., 1. zk. Proyecto Educativo Compañía de María. ODN Bordeaux, 1. zk., 2011, 8. zk.

Eredu Pedagogiko Unibertsal hau une konplexu batean jaio da. COVID-19ak sortutako pandemiak beste pandemia ugari eta aldaketa sakonen beharra agerian utzi ditu; jakitunago egin gaitu gure eskolak aldaketarako eragile izan daitezkeela. Hezkuntza Komunitate gisa eta Lagundi Komunitate Unibertsal gisa esku artean dugun erantzukizuna ikasle bakoitzaren berezitasuna, bere izate bakarra eta errepika ezina, anaitasuneko herritartasun globalaren horizontean hobetzea da; "lurra ernaltzeko eta etorkizuna sortzeko" gai den senidetasuna¹, sinesten dugun eta apustu egiten dugun etorkizun berri hori.

Maria, Gure Andrea, guretzat bidelagun eta erreferentzia da. Eskutik helduta, gidatzen gaituen Jaunari begira, bidean jarraitzen dugu.

*M^o Rita Calvo Sanz
odn Nagusi Jenerala*

*Erroma, 2020ko azaroaren 21a
Mariaren Aurkezpenaren jaia*

² Cf. "Fratelli Tutti" Gutun Entziklikoa, anaitasunari eta adiskidetasun sozialari buruzkoa. Francisco Aita Santua. 2020ko urria, 53. zk.

Sarrera

Duela 400 urte baino gehiagotik, bi ezaugarrik markatzen dute gure eskolako hezkuntza-proiektua eta irakaskuntza-ikaskuntza proiektua: betetik, persona ikaskuntzaren erdigune izateak, eta bestetik, bere buruaren ahalik eta bertsiorik onena izan dadin, Jainkoak izatera deitzen duena, alegia, persona ardatz duen hezkuntzak. “SIGNA”-k, Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoak, Hezkuntza Pertsonalizatuaren ekarpenak biltzen ditu, gaur egungo argian sakontzen saiatzen da (horrek dakarrenarekin), eta mundu multikultural, global eta konplexu honek eskatzen dituen aldaketei erantzuteko dinamika, metodo eta tresna berriak indarrean jartzen saiatzen da. Mariaren Lagundiak hezkuntza-misioa betetzen duen testuinguru eta kultura desberdinetan praktikan jartzeko beharrezkoa den malgutasuna duen Dokumentu unibertsala da.

Ereduaren edukia hiru ataletan azaldu da:

- **Lehenengoa:** *Mariaren Lagundia Ikastetxeen sustraiak eta zentzua.* Abiapuntu gisa, Erakundearen izatearen arrazoia, xedea eta nahiak finkatzen dituzten Misioa, Ikuspegia eta Balioak biltzen ditu. Oso laburtuta, Hezkuntza Proiektuaren oinarrian dauden iturriak eta sustrai historikoak hartzen ditu barnean, bai eta gure hezkuntza-lana markatu duten eta markatzen duten eta identitatearen seinale diren printzipio filosofiko eta pedagogikoak ere. Hona hemen Mariaren Lagundia Hezkuntzaren hainbat azentu.
- **Bigarrena:** *Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoa.* Hezkuntza Pertsonalizatua. Ikaskuntza-irakaskuntza mota honen zergatia eta horrek dakartzan konpromisoak oinarrizten eta definitzen ditu, baita bereak diren ezaugarriak eta Hezkuntza-komunitatearen osagai guztien eginkizuna eta beharrezko elkarrekintza ere. Era berean, ebaluazio pertsonalizatuko era desberdinak nabarmentzen dira.

Atal honen amaieran, ikasten ikasteko metodologia aktibo desberdinak deskribatzen dira.

■ Hirugarrena: Ikastetxeetan eskaintzen den zenbait proiektu. Eskaintzen dena *"ikasgelatik eta ezarrita dagoen horretatik haratago"* doala nabarmentzen du, hezkuntza integral eta inklusibo baten bila. Adibide gisa esanguratsutzat jotzen diren gutxi batzuk baino ez dira aipatzen; Ikastetxeek, beren errealitatearen eta baldintzen arabera, adibideok ezarri, aberastu edo beste batzuk gehi ditzakete.

SIGNA-k, bere esanahi etimologikoak adierazten duen moduan, identitate propioarekin hezteko konpromisoa sinatzen jarraitzen du, Elizaren eta munduaren zerbitzura, Joana de Lestonnacen nahiari jarraikiz.



1

**Mariaren Lagundia
Ikastetxean**

sustraiak eta zentzua

1.1. Misioa, ikuspegia eta balioak

1.1.1. Misioa

Fede-justizia, fede-kultura, fede-zientzia eta teknologiaren elkarrizketatik, pertsonen heziketa integralean eta gizartearen eraldaketan eragina duen hezkuntza humanista eta kristau bat eskaintzea³.

1.1.2 Ikuspegia

Mariaren Lagundiaren Ikastetxeak, Santa Joana de Lestonnacen karisman inspiratuta, Ebanjelioaren balioen esperientzian oinarritzen dira; hots, hezkuntzaren bikaintasunean, kudeaketaren kalitatean, mundu plural eta anitzarekiko irekitasunean, konpromiso sozialean eta planetaren zaintzan.

1.1.3 Balioak

Zenbait balio partekatzeak, aztarna pertsonaletik hartutakoak, Lagundi gisa identifikatzen gaituen izateko eta egiteko modu bat konfiguratzeko du. Balioek identitatea emateaz gain, egunerokoan bizitako jarrera eta jokabideetan islatzen den zentzuaren zerumuga ere badira. Unibertsalki⁴, honako hauek zehaztu dira:

- **Jesusenganako pasioa.** Jesus existentziaren printzipio, oinarri eta zentzu gisa.

³ Proyecto Educativo Compañía de María (P.E.odn), nº 1 ODN Bordeaux. Ediciones Lestonnac, 2011, 1. zk.

⁴ Cf. XVII Capítulo General. ODN nº 26, Roma 2015, p. 248-251.

“ Maria Gure
Andrearen
Lagundia,
emakumeen
hezkuntzari
eskainitako
lehen Erlijio
Ordena

- **Apaltasuna.** Norberaren errealitatea eta besteena onartzea, harremanetara eta elkar laguntzera irekitzen dena.
- **Xumetasuna.** Txikia, hauskorra eta egunerokoa estimatzea.
- **Doakotasuna.** Bizitza oparizat eta zerbitzatzeko gogo gisa hartzea, trukean ezer espero gabe.
- **Erruki.** Bestearen sufrimenduak norbera hunkitzen uztea eta maitasun eraginkor batekin erantzutea.
- **Abegia.** Bihotza irekitzea bestea ezagutzeko eta, aukera berriei ongi etorria emanez, elkarrekin ibiltzeko.
- **Koherentzia.** Pentsatzen, esaten eta egiten denaren arteko harremana.
- **Poza.** Bizitzeko poza isurtzen duen ikuspegi baikor baten emaitza.

1.2. Iturriak eta sustrai historikoak

Mariaren Lagundiaren sortzailea, Joana de Lestonnac, Bordelen (Frantzia) jaio zen 1556. urtean, Lestonnac-Eyquem de Montaigne familian. Ingurune humanista batean hazi zen eta gertutik bizi zuen protestanteen eta katolikoen arteko erlijioen gerra. Gastón de Montferrantekin ezkondu zen, bost seme-alabaren ama izan zen eta, alargun geratu zenean, Fulienses de Toulouse monasterioan sartu zen, baina handik gutxira erretiroa hartu behar izan zuen osasun arazoengatik. 1607an Maria Gure Andrearen Lagundiaren

Ordena sortu zuen, emakumeen hezkuntzari eskainitako lehen Erlijio Ordena. 1949ko maiatzaren 15ean Elizak santu izendatu zuen.

Gizarteari eskainitako Hezkuntza Proiektua bere bizitzako esperientzia aberats eta sakonen, eta garaiko korrante berritzaileen eraginaren emaitza da:

- Osaba Miguel de Montaigneren humanismoak funtsezko ondorioak ditu hezkuntzaren ikuspegian, hauxe azpimarratuz: munduaren ikuspuntu kosmopolita, kritikoa eta konfiantzazkoa, pertsona bakoitzaren izaera berezia, integrala eta dinamikoa, adiskidetasunaren balioa, zintotasunaren bertutea, norberaren burua aurkitzeko beharra, elkarrizketaren garrantzia eta bakoitza bere desberdintasunekin harrera egitea, epaiketa zuzena eta egiaeren etengabeko bilaketarenganako maitasuna⁵.
- Amak igorritako pentsamendu kalbinistak heziketa intelektual eta morala proposatzen du, gizakia gizarteratzeko eta bere fedearen arrazoia emateko prestatzen duena. Hezkuntzaren xedeak ezagutzera ematen dizkio: ohitura onak, dotrina onak eta "onura publikoa"⁶.
- Jesusen Lagundiaren Ratio Studiorum-ak, espiritualtasun sendoan inspiratuta, pedagogia, erregulazio eta eskola antolaketarako oinarriak eskaintzen ditu.

Iturri horietatik eraikitako Hezkuntza Proiektuak dinamismo etengabea du bere baitan eta "gero eta hobea" bilakatu nahi du⁷; horrek garai eta lekuen arabera berritzea eskatzen du, esentzia mantenduz.

⁵ Cf. Michel de Montaigne, *Los Ensayos, Acantilado*. I liburura, irakasleei buruzkoa (24) eta seme-alaben hezkuntzari buruzkoa (25); II liburua, liburuei buruzkoa (X). Bartelona 2007

⁶ Cf. Documentos Fundacionales 1605-1638, ODN 1. Roma, 1976. *Fórmula de las clases*, III. kap., 142. orr., 1. zk. *Proyecto Educativo Compañía de María*. ODN Bordeaux, 1. zk., 2011, 9. zk.

⁷ P.E.odn, 2011, 8. zk.

“ Hezkuntza
Komunitatea
balioen
transmisorako
erreferentzia
gunea da

1.3. Printzipio filosofiko eta pedagogikoak

Historian zehar, hezkuntza Mariaren Lagundian esanahi filosofiko eta pedagogiko sakoneko adierazpenekin identifikatu da, dagoen leku guztietan bere hezkuntza-lana eta bere identitate-zantzuak markatu dituztenak.

Besteak beste:

“Oin guztiak ez dira neurri berekoak”

“Buru ongi hornituak prestatzea, ongi beteak baino”

“Ez utzi sugarra iraugitzen”

“Emakumeak emakumea salbatu behar du”

“Bizitzan eta bizitzarako heztea”

“Komunitatean heztea Proiektu komun batetik abiatuta”

“Lagun egin, integratu eta hazten laguntzen duen harremana”⁸

1.4.1. Testuinguruan jarritako hezkuntza

Ikaslearen errealitatea (alegia, bere familia eta ingurune soziala ezagutzea) oinarrizko alderdi bihurtzen da ikaskuntza esanguratsua eta egokia burutzeko aukera eskaintzeko, haren eguneroko bizitzari lotuta, maila lokal eta unibertsalean esperientzia berrietarako ateak irekitzeko, eta ezagutzarekiko interesa eta ezagutza berrien eraikuntza motibatzeko.

Era berean, ikasleak trebatzea beharrezkoa izango da, errealitatearen irakurketa kritikoa eta itxaropentsua egin dezaten, bizi duten une historikoaz jabetu daitezen, beste mundu hobe

⁸ Cf. P.E.odn, 2011,n.13-19.

posible dela baieztatzen duen utopian sinets dezaten eta eraikuntza horretan haien lekua aurki dezaten, hobekuntzan eta ondasun komunean parte hartuz.

1.4.2. Pertsona ikastetxean

Mariaren Lagundiaren Hezkuntza Proiektuak ikaslea ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatzen du bere garapen pertsonala eta akademikoa sustatzeko. Ikasle bakoitzaren hezkuntza ezaugarriak eta beharrak hartzen ditu kontuan, eta horregatik, ingurune inklusiboak sortzearen alde egiten du; bertan, pertsonalizazio eta sozializazio prozesuak sustatzen dira.

Ikaslea izaki bakartzat eta errepika ezintzat jotzen da, bere berezitasunean originala, bere nortasunarekin, bere askatasuna baliatzeko eta apurka-apurka bere hazkundearen eta aurrerapenaren erantzule izateko gai dena. Haien ahalmen guztiak garatzen laguntzen duen eta haien beharrak asetzen lagunduko duen prestakuntza integrala eskaintzea da ikuspegi singularizatu honen helburu nagusia.

1.4.3. Formakuntza etikoa, balioak, gizarte-erantzukizuna eta ekologia integrala

Hezkuntza-komunitatea balioen transmisiorako erreferentziazko lekua da. Konpromiso etikoa eta guztientzako bizitza oso eta esanguratsua bilatzea saihestezinak diren erronkak dira Mariaren Lagundiaren sorreran, bai eta erantzukizun unibertsalaren kontzientzia sortzea ere, bertan pertsona bakoitza eta planeta balioetsi, errespetatu eta zaintzen direlarik. Dagoen guztiarekin harreman dinamiko eta positiboa izateko trebakuntzak ikasleari modu konprometitu batean bizitzera bultzatzen duen identitate

“ Hezkuntza
gizartearen
eraldaketan
eragina duen
ondasun
publikotzat
jotzen da

kosmopolita globala konfiguratzea ahalbidetzen dio eta sortutako guztiarekin harmonia eta senidetasun harremanak ezartzea.

Ikuspegi honek topaketaren kulturaren alde lan egitea dakar, non desberdintasunak elkarrizketa eta helburu komunak bilatzera gonbidatzen dituen aberastasun bilakatzen diren, gizateriaren eta planetaren kausa handiei laguntzeko; justiziaren eta bakearen aldeko borroka, "etxebizitza komuna" zaintzea, kontzientzia etikoa eta herritartasun globala orokortzea.

1.4.4. Formakuntza espirituala eta fedearen ingurukoa

Mariaren Lagundiak Jesus Nazaretokoak iragarri zituen balioak proposatzen ditu gizakiaren betetze-bideetarako eta norberaren barrukotasunera eta besteekin eta Jainkoarekin topatzera sartzeko bide gisa.

Ikuspuntu horretatik abiatuta, hezkuntza humanista-kristau honek Jesus eta Maria Gure Andrea (bidelaguna, mundu berri bat iragartzen duten balioen erreferentzia) jartzen ditu Aitarengana iristeko bidearen erdigunean. Espiritualtasun ignaziotarra, Santa Joana de Lestonnacen esperientzia konkretuan, Jesusen Espirituak munduan duen antzeppen eta askapen presentzia ezagutzeko eta Jainkoaren Erreinua eraikitzen laguntzeko gida da.

Mariaren Lagundia Ikastetxeek, eskola katolikoak diren aldetik, Ebanjelioaren balioetan oinarritutako prestakuntza integrala eskaintzen dute, pertsona bakoitzaren kontzientzia eta usteak errespetatuz. Ebanjelizazio-hezkuntza hau inspirazio iturri da fededunentzat eta ez-fededunentzat, sakonki gizatiarra izanda, unibertetsala baita.

1.4.5. Kalitatezko hezkuntza, bikaintasunaren bidea

Gure Ikastetxeetan eta, Joana de Lestonnacen urratsei jarraituz, hezkuntza gizartearen eraldaketan eragina duen ondasun publikotzat jotzen da. Gaur egun, kontzientzia honek gure ikastetxeetako bizitza eta Hezkuntza Komunitate osoaren lana argitzen ditu. Etengabe hobetzeko ahaleginak, ondo zehaztutako proiektu baten bidez, egiten dugun guztiaren osotasuna eta koherentzia bilatzeak, aurrera egiteko eta irekitze, ebaluazio eta berritze prozesu etengabearen egoteko aukera ematen digu.

Gure Ikastetxeetan eta ikasgeletan sartzen diren aldaketa pedagogiko, metodologiko eta antolatzaileek eskaintzen dugun hezkuntza-zerbitzuaren kalitatearen aurrerapenak erakusten dituzte. Hezkuntza honek, bikaintasuna bilatzen duena, Komunitatearen maila guztietan du eragina, eta testuinguruaren hobekuntzan islatzen da ere bai.

Gaur egungo munduan (etengabeko aldaketan, interkonektatua eta globalizatua), metodologia aktiboak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) gure eguneroko lanaren aliatu bihurtzen dira, ezagutzaren eraikuntza eta ezagutzaren eta kulturen arteko harremana erraztuz. Arestian aipatutakoek sareko lana sendotzen dute, eta ezagutzak eta talentuak partekatzea lankidetzaren espazioetan eta ikaskuntza komunitateetan.

1.4.6. Komunikazioa eta laguntza

Elkarrizketa eta pentsamendu kritikoa funtsezko elementuak dira pertsonalizazioaren eta sozializazioaren bidean. Miguel de Montaigne eta Joana de Lestonnacen ustez, elkarrizketaren eta lagunartearen artea funtsezkoa da denengandik eta denekin eta gure inguruko guztiekin ikastera gonbidatzen gaituen hezkuntza humanistikoan. Uste hau Mariaren Lagundiaren Hezkuntza Proiektuan biltzen da eta ikaslearen eta hezitzailearen arteko harreman forma markatzen du, konfiantza eta elkarrekiko errespetua ezaugarri dituena: “Hezitzaileak ikasleekin batera doaz aurrera, hurbiltasun eta maitasun giroan, horizontea seinalatuz eta bakoitzak bere bidea egin dezan”⁹.

Ikasle bakoitzak bere hazkunde pertsonalean pixkanaka errealitate bihurtzen ari den proiektua eraikitzen du, baina ezin du aurrera egin elkarrizketarik gabe, errespetuzko eta bizigarrizko laguntzarik gabe, isiltasun uneekin eta norbere barneratze pertsonalarekin batera beharrezkoak diren autonomia, askatasuna eta autoestimua eskuratzen laguntzen dutenak, funtsezko erabakietan hautematea eta iritzi ona izateko eta, horrela, beren trebetasunak eta gaitasunak segurtasunez garatzeko.

⁹ P.E.odn, n°15.

2

**Mariaren Lagundiaren
eredu pedagogikoa:**

hezkuntza pertsonalizatua

Mariaren Lagundiak, bere historian zehar, bere sortzailearen hezkuntza-ezagutzak gorpuztu ditu. Joana de Lestonnacek bazuen barne Berpizkundeko humanismo sendotuaren iturria. Horren arabera, mundu katolikoak zein protestanteak pertsonaren balioa bere baitan eta bere osotasunean azpimarratzen zuten, bai eta hezkuntzaren garrantzia ere. Pertsona ikaskuntzaren erdigune gisa eta pertsonan zentratzen den hezkuntza, bere aukerak garatu ahal izateko eta munduan duen eginkizuna gaitasunez betetzeko. Horiek dira gure Hezkuntza Proiektuaren eta gure ikastetxeen irakaskuntza-ikaskuntzaren ezaugarri nagusiak, hain zuzen ere.

Joana de Lestonnacek gizarteari eta Elizari opari gisa ongietorria eta oparia eskaintzen dien hezkuntza proposamena zentzuz biltzen ditu ordura arte burututako hezkuntza esperientzia jaioberriak, eta esperientzia hori garai bakoitzeko korrante pedagogikoen ekarpenarekin aberastu da, hezteko estilo propioarekin bat etorriz.

Gaur egun, beharrezkotzat jo da Mariaren Lagundiaren Eredu Pedagogikoa esplizitu egitea, Hezkuntza Pertsonalizatuaren ekarpenak txertatuz, bere inplikazioetan sakonduz eta kultura anitzeko, mundu global eta konplexu batek eskatzen dituen aldaketei erantzuten dieten dinamika, metodo eta tresna berriak gehituz.

“SIGNA” Eredu Pedagogiko berri honek, Mariaren Lagundiaren Hezkuntza Proiektuarekin bat eginik eta Ebanjelizazioaren “UNITAS” ereduak berak irradiatuta, bereizi ezin den osotasun gisa, pertsona bakoitzaren prestakuntza integral eta inklusiboan eragin nahi du, bere ikaskuntzako protagonista gisa eta bere bizitza-proiektutik prestatzen duten gaitasunak eta ahalmenak garatzeko gai baita mundu global horretako herritarra izateko eta besteekin lankidetzan aritzeko bera eraikitzen.



2.1. Hezkuntza pertsonalizatua: kontzeptualizazioa

Hezkuntza pertsonalizatuak, “hezkuntza kontzeptu gisa, hezkuntza egitateari buruzko kosmoikuspegi bat eskaini nahi du. Korrante, ikerketa, sistema, metodo, teknika, estrategia eta prozedura guztietarako irekitasunagatik balioetsi behar da, baldin eta pertsonaren formakuntza osoari ekarpenik egiten badiote”¹⁰. Hezkuntza pertsonalizatuaren kontzeptualizazioak ingurunearekiko, besteekeiko eta norberarekiko elkarrekintzaren ondorioz ezagutzaren egituraketa esanguratsua defendatzen duen ikuspegi konstruktibista bat du. “Modu polifazetiko eta integralean biltzen ditu pertsona bakoitzaren garapen integrala lortzeko beharrezkoak diren faktore guztiak. Oinarria, jatorria eta xedea den pertsonarengan oinarritutako estilo batetik giza-fakultateen nahitako hobekuntza gisa ulertzen du hezkuntza”¹¹.

¹⁰ Bernardo, J. Educación personalizada: principios, técnicas y recursos. Madrid: Síntesis, 2011

¹¹ García Hoz, V. Introducción general a una pedagogía de la persona. Tratado de la Educación Personalizada. Madrid: Rialp, 1993.

Ikasketa sistema pertsonalizatu batek sozializazio eta pertsonalizazio prozesuak sustatzen ditu; ikasle bakoitzaren originaltasuna, askatasuna, autonomia eta erantzukizuna aitortzen ditu bere ahalmena ahalik eta gehien garatzeko. Pertsonaren printzipioak eta dimentsioak hartzen ditu kontuan, ondo egindako jardueraren bidez, kontzientzia, doako eta elkarbizitza adeitsuaren bidez. Gainera, gizakiaren dimentsio guztiak indartzen ditu: fisikoa, kognitiboa, emozionala eta espirituala. Beti dinamiko den hezkuntza prozesu honek pedagogia, curriculuma eta ikaslearen ingurunea aldatzea ahalbidetzen du bere behar eta nahietara egokitzeko; horrek denbora eta esanahi-trukea eskatzen du. Eduki berriek esanahia hartzen dute ezezagunaren eta ezezagunaren arteko harremana dagoenean, ikaslearen egitura kognitiboarekin erlazionatutako esanahi logikoa duen materiala erabiliz. Ikasgelako jarduerak taldeko kide bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta espezifikotara egokitzen dira: adina, ingurune kulturala, informazioa prozesatzeko eta antolatze gaitasuna, besteak beste. Egokitzapen horrek jakin-mina eta interesa sortzen ditu, egoera eta arazo erreal eta berritzaileetan oinarritzen baita.

Ikasleek inguratzen duten mundua nola funtzionatzen duen behatzen eta ulertzen ikasten dute, beren burua egokitzen, zalantzan jartzen, arazoei irtenbideak bilatzen iraunkortasunez gainditzeko eta akatsak ikaskuntzaren funtsezko atal gisa baloratuz.

Prozesu horretan, ezagutzak eskaintzen zaizkie, trebetasunak eta gaitasunak hobetzen dira, lana erritmoetara, eskakizunetara eta lehentasunetara egokitzen da ahalik eta ingurune kolaboratibo eta interaktiboenean. Honek uniformetasuna, homogeneotasuna eta errepikapena ekiditen dituen hezkuntza-eskaintza dakar berekin. Ikasgelan autoerregulazioari garrantzia ematen zaio, prozesu osoan zehar, ikasleak aukeratu eta erabilitako estrategiaren eraginkortasuna edo eraginkortasun eza ebaluatu ahal izateko.

Horrek guztiak ikaskuntza esanguratsu bat konfiguratzeko du, esperientzia pertsonalerako eta eskolako esperientziarekiko garrantzia lortzen duena.

Laburbilduz:



2.1.1. Ikaskuntza pertsonalizatua

Ikasleak, estimuluak jasotzean, bere buruari galdeketa egiten dio, errealitatek datozen galderak egiten ditu eta ezagutza bereganatzen du hausnarketa prozesu baten ondoren, estimulu horiek eskaintzen dituzten datuak landuz.

Ezezagun edo galdera bat formulatzea suposatzen duen jarduera batekin hasten da ikaskuntza. Lehenengo momentuak honako funtzioak ditu: behatzea, identifikatzea, izendatzea, aztertzea, alderatzea, antolatzea, ondorioztatzea... Huetan guztietan arreta eta memoria erabiltzen dira. Geroago, ikaslea ezagutza berrietara iristeko gai da, bere izatearen barruan gertatzen den lantze-prozesuaren bidez jasotako estimuluak eraldatuz. Ezagutza berri

honek pertsonaren barruko aberastasuna suposatzen du, bai eta ikasitakoa atxikitzea eta hartaz jabetzea. Ezagutza jatorrizko ikaskuntza ez den testuinguruetan erabiltzeko asimilatzen da eta sorkuntzaren bidez adieraz daiteke: hitzekoa, idatzizkoa, keinuzkoa edo praktikoa.



2.1.2. Hezkuntza-estilo pertsonalizatzailea

Hezkuntza-estilo honek honako honi mesede egiten dio:

- Ikasgeletan banakako eta taldeko lan aktiboagoa eta parte-hartzaileagoa, orainaren kontzientzia hobetzen duena: hemen eta orain.
- Bizitza osoko ikaskuntza.
- Ikasketaren protagonista ikaslea izatea eta irakaslea inspiratzailea, bitartekaria, gidaria eta bidelaguna.
- Ezagutzaren ebaluazioa ikasle bakoitzaren errealitate pertsonalaren eta testuinguruaren arabera helburuak eta balioak sortzeko funtsezko faktore gisa.

Hauetako dira hezkuntza eredu pertsonalizatzailearen ezaugarriak:

- Integratzailea eta irekia: errealitatearen elementu guztiak biltzen ditu. Ezberdintasuna elementu osagarri bat bezala aurkezten da, dena osatzeko. Osagarritasun hau, funtsean, integratzailea da. Bestearen eta errealitatearen aurrean irekitasun jarrera sustatzen da, pertsona bakoitzaren aukera guztiak garatzea bultzatzen duena.

“ Bizitzaren zentzua ondasun pertsonal eta komun gisa deskubritzen da, baikortasunetik eta itxaropenetik

■ Hausnarketa eta kritika: hausnarketak funtsezko eginkizuna du ikaskuntzari giza-izaera emateko. Hori eragiteko eta irizpide pertsonal objektiboak sustatzeko jarduerak bultzatzen dira. Hau da ahalbidetzen duena:

- _ Barrurako begirada argia.
- _ Norbere bizitzaz jabetzea haren esanahirik sakonena ezagutzeko.
- _ Errealitatea irizpideekin eta informatutako iritzi batekin behatzea eta baloratzea.
- _ Pentsamendu kritikoa garatzea.

■ Berezitasuna eta elkarbizitza: gaur egungo gizartea ezaugarritzen duen despertsonalizazioari aurre egin diezaiokegu ikasgelan ikasle bakoitzaren harreratik, pertsona bakarra eta errepika ezina den aldetik; beren kabuz jokatzeko, identitatea indartzen eta autonomia indartzen laguntzen die horrek.

Aldi berean, indibidualismorako eta pertsonalitate itxi eta berekoiak eratzeko joera soziala kontrajartzen da. Horregatik, garrantzi berezia ematen zaio pertsonak ingurukoekin duen loturari, eta komunikazioa eta irekitasuna sustatzen dira harreman-bide gisa. Hau da helburua:

- _ Tratuaren zintzotasuna.
- _ Adiskidetasuna eta laguntasuna sustatzea.
- _ Kalitatezko denbora irakasle-ikasle harremanean.
- _ Lan giro ona, bizikidetzeta eta ohiturak eskuratzea.
- _ Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko lankidetzeta.

■ Lana eta sormena: bizitzako agerpen guztietara hedatzen den sormen gaitasuna indartzen da: zientzia, artea, teknologia, eskola-bizitza, familia-bizitza... Horregatik:

- _ Ongi egindako lana aukeratzen da.

- _ Adierazpena errazten duten ikaskuntza eta jarduerak bultzatzen dira.
- _ Bakarkako lana eta talde lana bultzatzen dira lankidetzarako eta bizikidetzarako bitarteko gisa.
- _ Ikasleek aurrea hartzen duten egoerak sortzen dira, beti ere irakasleek lagunduta.
- Zorroztasuna eta gozamina: ondo egindako lana eta jarrera ona dira helburu, batzuetan merezi duen horrek zorroztasuna eskatzen duela eta gozamina sortzen duela jakinda. Bizitzaren zentzua ondasun pertsonal eta komun gisa deskubritzen da, baikortasunetik eta itxaropenetik. Horregatik, hau da lanaren xedea:
 - _ Zuzena zer den aitortzea eta berrikusi edo hobetu beharreko portaerak, ekintzak edo produktuak zuzentzea.
 - _ Zaletasunak bultzatzea, zoriontasun- eta harreman-iturri gisa.
 - _ Diziplina eta autokontrola indartzea.

2.2. Hezkuntza pertsionalizatuak gaur egun dituen konpromisoak Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoan

- Ikasle bakoitzaren gidari izatea, erantzun beharreko behar pertsonalak dituen izaki bakar gisa.
- Pertsona bakoitzaren duintasuna, nortasuna eta berezitasuna aitortu ahal izateko baldintzak ezartzea. Norberarekiko eta

“ *Planeta eta bizitza bere agerpen guztietan zaintzeko konpromisoa suposatzen duen prestakuntza etiko eta soziopolitikoaren lehenestea*

besteekiko errespetua sustatzen duten indibidualtasuna eta sozializazioa lantzea, barneratze pertsonalean, elkarrizketan eta parte hartzean oinarrituta.

- Pertsonaren dimentsio guztiak garatzea eta autonomia, askatasuna, ekimen pertsonala eta lan ohiturak hobetzea.
- Hezkuntzari buruzko ikuspegi aktiboa mantentzea eta ikaskuntzaren pertsonalizazioa ekitatearekin, irisgarritasunarekin eta gizarte erantzukizunarekin. Eskolak ikasleei beren bizitzaren eta ikaskuntzaren erantzukizuna lortzeko beharrezko tresnak eskaintzen dizkion bitartekoa izan behar du.
- Hezkuntza prozesuak ikasle bakoitzaren ezaugarri eta behar espezifikoetara egokitzea, ahal duten neurrian garatu ahal izateko eta haiei aurkezten zaizkien aukerak hausnartzeko eta aztertzeko aukerak eskainiz.
- XXI. mendeko trebetasunak garatzen dituzten ikaskuntza esanguratsuak eta garrantzitsuak sustatzea: pertsonartekoak, teknologikoak, berrikuntzarako eta sormenerako eta nortasun kosmopolita globala egituratzeko.
- Ingurune sortzaile, dinamiko eta estimulatuzaileetan lan egitea, kognitiboki eta afektiboki, ikasleen ilusioa eta jakin-min intelektuala sustatzen dutenak.
- Ikaslearen ezaugarri eta beharretara egokitzen den eta haien aurrerapenaren identifikazio eta dokumentazio objektiboa ahalbidetzen duen curriculum pertsonalizatu eta irekiaren aldeko apustua egitea.
- Lan-ohitura intelektualak eta ikasten eta pentsatzen ikasteko estrategiak menderatzea sustatzea: garrantzitsua dena hutsala denaz, errealia dena itxurazkoa denaz, iraunkorra aldatzen ari denaz bereizteko gaitasuna. Eta ikaskuntza metakognitibo bat, prozesu osoan autoerregulazioa eta autokontrola ahalbidetzen duena.

- Euskarri eta baliabide fisiko eta teknologiko ezberdinak erabiltzea eduki iturri eta ikaskuntza berri gisa.
- Pentsamendu eta trebetasun digital desberdinen garapena sustatzen duten metodologiak eta tresnak baloratzea.
- Etengabeko eta formazioko ebaluazioaren aldeko apustua egitea, ikasleen jarraipena etengabeko jarraipen gisa ulertuta, haien garapena, potentzialtasunak eta zailtasunak ezagutzeko; programa berregokitzea, errendimenduan baino gaitasunean eta motibazioan oinarrituta.
- Hazkunde pertsonalaren prozesua ongi egindako eta etikoki egindako lana asebetetzearekin lotzen saiatzea.
- Familien parte-hartze kolaboratiboa, konprometitua eta koherentea sustatzea eskolako bizitzan eta ikaslearen garapenean.
- Kulturen arteko topaketak sustatzen dituzten beste desberdintasunetarako irekitasuna erraztea, desberdintasunak onartzea eta entzuteko, komunikatzeko, lankidetzarako eta trukerako gaitasuna indartzea.
- Planeta eta bizitza bere agerpen guztietan zaintzeko konpromisoa suposatzen duen prestakuntza etiko eta soziopolitiko lehenezte, gizarte bidezkoagoa eta baketsuagoa eraikitzen lankidetzan aritzeko, munduko hiritarrak izatearen kontzientziarekin.
- Jesus Nazaretokoaren pertsonarekin topaketa eta Jainkoaren Erreinua eraikitzeko konpromisoa sustatzen duen hezkuntza kristaua eskaintzea.

2.3. Hezkuntza-komunitatearen osagaien rola, kokalekua eta jarrera

Mariaren Lagundia Eredu Pedagogikoan, ikaslea zentroan kokatzen da eta eskolak eta familiak harmonian lan egiten dute, proiektu komun baterako, testuinguru sozial zabal eta zehaztu batean. Bertan, elkarrekiko konfiantzan oinarritutako harremanek hazkundea, elkarren arteko harremana, elkarrizketa eta talde-lana ahalbidetuko duten prozesu etengabea eta bizigarria markatzen dute.

2.3.1. Ikaslea

Hezkuntza pertsonalizatuak ikasleari bere ikaskuntzaren protagonista papera aitortzen eta ematen dio eta bere prozesuaren erantzule nagusia bihurtzen du. Izaki aktibo eta arduratsu gisa, ikasleak egiten duen horretan parte hartzen du eta bere helburuak lortzen ahalegintzen da.

Ikaslea, ikasgelaren barnean eta kanpoan egindako lanari esker, hezitzaileen harremanari eta laguntzeari esker, autonomia eta ikaskuntzaren kontzientzia hartzen doa bere garapen pertsonalean. Prozesuan parte hartzen du eta helburuen eta horiek lortzeko moduez jabetzen da. Estimuluak jasotzeko, bere buruari galderak egiteko, erantzunak bilatzeko, ezagutzak sortzeko, konpromisoak onartzeko eta erabakiak hartzeko gai da. Ikasketa prozesuaren beraren metakognizioa eta autoerregulazioa erabiltzen ditu, egoera bakoitzean zein estrategia erabili behar den planifikatzeko aukera ematen dutenak, nola aplikatu eta nola kontrolatu ebaluazio prozesua akatsak antzeman eta egoera berrietara transferitzeko. Izaki sozial gisa, ingurunearekin

erlazionatzen da eta ikaskideengandik eta ikaskideekin ikasten du, irakasleen eta bere ikaskideen orientazioak aintzat hartzen, hausnartzen eta kritikoki onartzen ditu, eta ikasitakoa ikasgelan eta ikasgelatik kanpo transferitzeko gai da. Hazkunde pertsonaleko prozesu honetan, norberaren ezagutza egokia eta autoestimu ona garapen integral hori posible izateko oinarri bihurtzen dira.

2.3.1.1. Ikaslearen irteerako profila

Irteerako profila ezartzeak helburu nagusia du ikasleak, gure Ikastetxeetan bere prestakuntza prozesua amaitzen duenean, etorkizunean arduraz jokatzeko prest egotea, ekimena, konpromisoa eta bikaintasun pertsonala erakutsiz.

Irteerako profil honek, gaitasun orokorren moduan adierazita, pertsonaren dimentsioak modu holistikoa eta zatikatu gabean jorratzea ahalbidetzen duen izaera globala hartzen du. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesua markatzen duen izaera globalizatzaileak ikaslea gaitasunak garatzera eta baliabideak eskuratzera bultzatzen duen plangintzarekin lotuta egon behar du bizitzak arlo pertsonalean, pertsonen artekoan, sozialean eta profesionalean planteatzen dituen erronkei erantzun ahal izateko.

Irteerako profil honek Ikastetxean eta ikasgelan hartzen diren hezkuntza erabakiak gidatzen ditu, modu nuklearrean bakoitzaren ezaugarri diferentzialei arreta eskaintzen dieten proposamen eta estrategia metodologikoen aukeran oinarrituta.

Ikaslea, bere bizitzako buru gisa, ezaugarri hauek dituen PERTSONA bat da:

- **Baikorra:** errealismo itxaropentsu batetik abiatuta, jendea eta egoerak alderdirik positiboenean edo aldekoenean ikusi ohi ditu.

- **Autonomoa:** bere irizpideekin, erabakiak hartzen ditu, eta askatasunez eta konpromisoz onartzen.
- **Proaktiboa:** ekimen ekintzailearekin, arazoak identifikatzen ditu, hobekuntza helburuak bilatzen ditu eta sormenez eta arduraz jokatzeko du.
- **Aditua:** badaki zer egin nahi duen, hori egiteko gai da eta egiten du, bere balioekin koherentziaren bikaintasuna bilatuz.
- **Diziplinatua:** langilea eta saiatua, hobetzeko eta aurrera egiteko gogoarekin.
- **Sentikorra:** besteen sentimenduak eta pertsonen eta naturaren bizitzan eragina izan dezaketen egoerak eta haien zaintzan parte hartzen du.
- **Emozionalki adimentsua:** norberaren ezagutzarekin, autoestimuekin eta autoerregulaziorako gaitasunarekin, nork bere emozioak ezagutu eta kudeatzen dituena eta besteenak errespetatzen dituena.
- **Balio sozial eta transzendentekin identifikatua:** solidarioa, espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa duena, munduari eta transzendentziari irekia eta ondasun komuna bilatzen duen taldean elkarrekin bizitzeko gaitasuna duena.
- **Konprometitua:** altruista eta eskuzabala, zerbitzu eta dedikazio gaitasuna duena, Jesus Nazaretokoarengan bere bizitzarako zentzua aurkitzen duena eta Maria eta Joana de Lestonnacengan konpromiso, eta giza eta kristau betetze-ereduak aurkitzen dituena.

2.3.2. Irakaslea

Mariaren Lagundia Ikastetxeetako irakasleak, Hezkuntza-proiektu instituzionalarekin konprometitua, elkarrekintzan aritzen den errealitatea eta ikasleak ezagutzen ditu. Oinarrizko eginkizuna du ikasgelan, ez aktore eta hizlari nagusi gisa, baizik eta gidari, bitartekari eta bidelagun gisa, ikasle bakoitzaren prestakuntza integralari arreta eskainiz; harreman egokia ezartzen du haiekin eta haien familiekin.

Kalitatezko hezkuntza sustatzen du eta ikasleak planifikatutako helburuetara bidaltzen ditu. Bakoitzarekin elkarreraginetik, jarraipen pertsonalizatua egiten du prozesuan zehar, gidatu eta beharrezko bitartekoak eta baliabideak erabiltzen ditu haien beharrei erantzuteko eta hazteko aukerak eskaintzeko. Curriculumaredu pedagogikoaren eta pertsona bakoitzaren beharren arabera diseinatu eta egokitzen du, eta ikaskuntza ebaluatzen.

Irakasleak ikasleei errealitatera irekitzen laguntzen die on egiteko, segurtasuna eta errealismoa eskainiz. Norberaren desberdintasunak onartzen ditu eta haiekiko sentikorra da. Elkarrizketa, partaidetza eta norberaren barneratzearen aldeko giroa sortzen du. Bere konpromiso pertsonalak, komunikazio gaitasunak eta ikasleekiko enpatia izateak aukera eta berdintasun printzipioaren defentsan sentiberatasunetik, tolerantziatik eta begirunetik laguntza eta zerbitzu jarrera izatera bultzatzen dute. Ahalegina arrakasta baino gehiago baloratzen du. Arrakastak estimatzen ditu eta akatsak onartzen ditu, ikasteko iturri gisa baloratuz. “Irakaslea, hitzarekin eta bizitzarekin, hezkuntzaren balio eta printzipioen lekuko da”¹².

Irakasleek irakaskuntzarako duten egokitasunak eta haien giza eta lanbide heziketak, Mariaren Lagundiaren pedagogia eta espiritualtasuna kontuan hartuta, Ikastetxeen kalitatea bermatzen dute.

¹² Cf. P.E.odn, n. 12

“ Irakaslea,
hitzarekin eta
bizitzarekin,
hezkuntzaren
balio eta
printzipioen
lekuko da

Etengabeko prestakuntza funtsezko puntu bilakatzen da irakasleek beren eginkizuna zentzuz bizitzeko eta errealtateak eta hezkuntza sistemak etengabe eta zorrotz eskatzen dituzten aldaketetara egokitzeko. Prestakuntzaren bidez, hezitzaileak ikasteari eta irakaskuntzari buruz pentsatzeko modu berriak eguneratu edo eskuratzen ditu, baita ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak ere, ikasleen beharrei eta gizartearen eskariei erantzuteko erabilitako metodologiak, irakasteko estrategiak eta baliabideak berritzeko aukera ematen dutenak. Irakasleak aldizkako autoebaluazioak egiten ditu eta nahita parte hartzen du Hezkuntza-proiektua eta Eredu pedagogikoa praktikan jartzen ari diren ebaluazioan.

2.3.3. Familia

Familiak, seme-alaben lehen hezitzailea den heinean, aktiboki parte hartzen du bere hezkuntza-prozesuan. Eskolako bizitzan bere parte hartzea sustatzen da, lankidetzaren harremanak sustatuz eta komunikazio egoki eta arinaren aldeko ekimenak burutuz. Ikastetxeak prestakuntza aukera desberdinak eskaintzen dizkie familiei, haurren hezkuntzan laguntza gisa eta transmititu eta bizi nahi dituzten balioak ekintza pertsonal eta profesionaleko beste arlo batzuetara ere eraman ahal izateko¹³.

Harreman honek hau sustatzeko xedea du:

- Ikasleen gurasoen edo tutoreen eta irakasle-tutorearen artean helburu komunak ezartzea, aldian-aldian berrikusten direnak.
- Ikaslearen hezkuntza prozesua gurasoekin batera eta etengabe ebaluatzea, aurrerapenak ebaluatzeke eta haien prestakuntza integralerako beharrezkoak diren hobekuntzak sartzeko.
- Komunitateko kideen artean harreman irekiak eta adeitsuak

¹³ P.E.odn, n. 11

sustatzen dituzten bilerak eta jarduerak: proiektuen aurkezpenak, hitzaldiak, bizikidetzak, graduazioak, festak eta Lagundiaren berezko ospakizunak...

2.3.4. Hezkuntza-komunitatea

Hezkuntza-komunitateak, lankidetzak eta lan osagarriaren bidez, Eredu pedagogikoa Ikastetxeetan garatzea eta ezartzea ahalbidetzen du. Kide guztien errespetuzko harreratik eta bakoitzaren ekarpen zehatzetik abiatuta eraikitzen da, kultura parte-hartzailea, elkarrizketa eta komunikazioa sustatuz, Mariaren Lagundiaren Hezkuntza Proiektua partekatutako proiektu komun bihurtuz.

Talde lanak, laguntza-harremanek eta hezkuntza zeregina burutzen duten pertsona guztien inplikazio arduratsuak hezkuntza guztion zeregina dela erakusten dute. “Hezkuntza-ekintza Proiektu komun baten inguruan egituratutako pertsonen arteko harremanen ehunean oinarritzen da”¹⁴.

Komunitate honetan kide bakoitzak eginkizun bat du:

- Ikaslea subjektua eta bere prestakuntzaren arduraduna da. Etapa bakoitzean, erantzukizun desberdinak hartzen ditu eta sortzen diren egoerei konpromisoarekin eta motibazioarekin aurre egiteko prestatzen da.
- Irakasleek ikasleen hazkundea lagundu eta bideratzen dute, haien garapena sustatzen dute eta beren bitzita proiektua eraikitzen laguntzen diete.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileek beren lekukotasunarekin hezten dute, beren berezitasunetik parte hartzen dute eta ezinbesteko laguntza dira Ikastetxearen funtzionamendu egokirako.


¹⁴ Cf. P.E.odn, n. 12

“ Gaitasun hezkuntza, berrikuntza eta aniztasunari arreta

- Familia seme-alaben hezkuntzan eragile nagusia da. Erakundearen filosofiarekiko laguntzarekin, lankidetzarekin eta identifikazioarekin, beraien prestakuntza integralean laguntzen dute.


Mariaren Lagundiaren Ordena, Ikastetxeko Zuzendaritzaren bidez, jarraipena emateaz eta eskaintzen den hezkuntza Joana de Lestonnacen espirtuarekin eta Lagundiaren tradizio pedagogikoarekin Hezkuntza Proiektuan adierazitakoarekin bat datorrela bermatzeaz arduratzen da.

Denen konpromisoarekin, Mariaren Lagundiak eskaintzen duen eskola posible egiten da, hurrengo ezaugarriak dituen:



2.4. Ezaugarriak

Gure ikuspuntuak, eta ikasteko eta irakasteko praktikek hezteko estiloa definitzen duten ezaugarriak dituzte eta konpetentzia hezkuntza, berrikuntza eta aniztasunarekiko arreta sustatzen dituzte.




2.4.1. Ikaskuntza esanguratsua, globala eta holistikoa

Ikaskuntza esanguratsua, globala eta integrala lortzeko konpromisoa hartzen da, ikasleari ikasten ari denari esanahia emateko gaitasuna emanaz, denboran zehar iraun dezan eta bizitzan zehar konpetentziaz jarduteko beharrezko baliabideak izan ditzan. Gizartearen etengabeko aldaketa eta eraldaketa

garai honetan, ulertzen dugu eskola jada ez dela informazio iturri bakarra. Ikastetxeak, munduari irekiak, ikaskuntza-tokiak dira, eta ez irakaskuntza-tokiak soilik, eta ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzen dute.

Mariaren Lagundia Ikastetxeetan, esperientzia errealak edo simulatuak eskaintzen dira, baina testuinguruan jartzen dira beti, ikasle bakoitzaren interesak, gaitasunak eta ikasteko estiloak ezagutzaren eraikuntza esanguratsua lortzeko aukera ematen dutenak. Gure Hezkuntza-proiektuaren filosofiaren oinarrietako bat lehenesten da eta honi erantzuten zaio: “Buru ongi hornituak prestatzea, ongi beteak baino gehiago”¹⁵.

Pentsamendu dibergentea eta sormena sendotzea dakarten erronken sorrera eta ikaskuntza autonomoa eta autogidatua sustatzen dira, inguruko mundua hobetu dezaketen pertsona ekintzaile eta berritzaileen prestakuntzan laguntzeko. Jarduerak ikasleen gaitasunen garapena eta balioen sustapena bultzatzeko bitarteko bihurtzen dira, eta horiek ikasteko oinarritzko elementua bihurtzen dira; beraz, hauek izan behar dute:



Edukientransmisioaz haratago, barnekotasuna (izatea), gaitasunak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta motibazioak (egin nahi izatea) garatzea sustatzen da, eta aldi berean pentsamendu islatzailea, irekia eta solidarioa eratzea norberaren galdeketa eta orokortzea eragiten duten prozedurekin bultzatzen da. Ikasleek ikaskuntza modu eraginkor eta autonomoan hobetzeko eta autokudeatzeko estrategiak ikasten dituzte jarduera baten zer, nola, zergatik eta zertarako propietateak aurkituz.

2.4.2. Mundura irekitako ikasgelak


Ikasgelak, laborategiak, tailerrak, liburutegia, etab. lan-espazio dinamiko eta eraikitzaileak bihurtzen dira, non elkarrizketa sustatzen den, ezagutzak eraiki eta elkarrekin ikasten diren eztabaidatik, ikerketetatik, esperimazioetatik eta jarduera esanguratsuen esperientziatik. Haietan, ikasleen jakin-mina eta errendimendua handitzen duen klima oso motibagarria sortzen saiatzea da helburua. Mundura, gertuen dagoen errealitatera eta ikastetxe bakoitzaren bizitzara irekitako espazioak dira, Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko trukea eta etengabeko hobekuntza ahalbidetzen dutenak.

Irakaslea ez da klase bakar baten erantzulea, baizik eta beste irakasle batzuen gela kudeaketan (team teaching) behatu eta bertan parte hartzen du. Irekitasun eta truke horrek komunikazioa eta elkarreragina eskaintzen ditu konfidentziasun- eta errespetu-giro batean. Klaseko behaketa, kudeaketa eta metodologiengatik inguruko eztabaidak hobekuntza profesionala suposatzen du eta jarduteko eta hezteko moduen trukea errazten du. Elkarlan honek ezagutza-fluxua eta irakasle taldeen ahalduntzea sustatzen ditu praktika profesional partekatua eta etengabeko hobekuntza lortzeko. Gainera, ikasleentzako proposamen dibertsifikatuen eskaintza ahalbidetzen du. Klaseak ikasgela espezializatu bihurtzen dira, hezkuntza-baliabide egokiekin, ikasgai bakoitzaren curriculumaren garapena errazten dutenak.

¹⁵ Cfr. P.E.odn, 2011, n. 16.

2.4.3. Hezkuntza kompetentziala

Eskolak funtsezko gaitasunak eskuratzea sustatu behar du, ikasleek ikasitakoa egoera errealetan aplikatzeko eta bizitza osoan zehar banaka, sozialki, akademikoki eta lanean garatzeko. Gure Ereduak ikaskuntza kompetentea eta esanguratsua lortzeko konpromisoa du. Helburua ikasleek gaitasunak garatzea da, hau da, ezagutzak (jakitea), trebetasunak (jakitea), balioak eta jarrerak (izaten jakitea eta elkarrekin bizitzen jakitea) integratzea hainbat testuingurutan modu eraginkorrean funtziona dezaten, eginkizun, funtzio, jarduera edo zeregin bat behar bezala bete dezaten, bizitza esanguratsua izateko prest egon daitezen, pertsona gisa norbere burua betetzeko gai izan daitezen eta mundu konplexu batean elkarbizitzeko gai izan daitezen, hura hobetzeko helburuarekin.



Izan nahi dutena eta autonomia eta ekimen pertsonala sustatzen duten eta "ikasten ikasteari" mesede egiten dioten gaitasunak lehenesten dira, gero eta modu autonomoagoan ikasten jarraitzeko gaitasun gisa ulertuta. Diziplinartekotasunetik, aurkikuntzako ikasketetatik eta arazoak konpontzetik, gaitasunen arabera lan egiteko eta ebaluatzeko aukera ematen duten tresnak eta metodologiak erabiltzen dira, ikaslea egoera berri eta garrantzitsuei aurre egiteko prestatzeko.

2.4.3.1. Pentsamendu konputazionala, gaitasun digitalak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera arduratsua

Gure Ikastetxeetan, teknologia diseinu pedagogikoaren zerbitzura jartzen da; ikasleek dituzten berezitasunetara, hezkuntza beharretara eta gaur egungo gizartera egokitutako ikaskuntza sustatzeko tresna da. Teknologia esponentzialak lehendik dauden mundu interkonektatu eta global honetan (robotika, adimen artifiziala, bioteknologia, nanoteknologia, errealitate areagotua, etab.), premiazkoa da pentsamendu konputazionala eratzea eta IKTak erabiltzea arazoak konpontzeko, ezagutzak eraikitzeko eta produktu berriak diseinatzeko tresna gisa. Ingurune birtual eta sareko partaidetzak ikaskuntza aktiboa, interaktiboa eta lankidetzakoa eta testuinguru desberdinetako ikasleen arteko trukea sustatzeko bitartekoak dira ere bai.

Gure Proiektuan, teknologiaren erabileran funtsezkoa da etika, etengabeko aurrerapenetara irekita dagoen horizonte sortzaileari erreparatzen badiogu. Horregatik, bitarteko horiekin hauek sustatzen dira: lan arduratsua, informazio-iturrien bereizketa eta aukeraketa kritikoa, autokontrola eta ez-menpekotasun teknologikoa, beste erabiltzaileekiko errespetua, intimitatea eta pribatutasuna zaintzea Interneteko espazio publikoan. Ikasleek teknologikoki arduratsuak izan daitezen oinarrizko erronkak dira horiek.

2.4.4. Hezkuntza-prozesuaren laguntza

Eskaintzen den prestakuntza integralak pertsonaren dimentsio guztien harmonia eta orekabilatzen du. Prozesu honetan, hezkuntza eragile desberdinen artean gertatzen diren testuinguruak eta

“ *Teknologia
diseinu
pedagogikoaren
zerbitzura
jartzen da*

elkarreraginak funtsezko eginkizuna hartzen dute: “ez du pertsona isolatu batek hezten, ingurune oso batek baizik”¹⁶.

Ikaslea motibatzen eta gidatzen duten irakasleekin batera doa, bere ikasteko erritmo pertsonala ezagutzen eta errespetatzen dutenak, haien beharrei erantzuna ematen dietenak eta bere gaitasunak eta aukerak indartzen eta garatzen laguntzen dutenak. Haien arteko harremana konfiantzan eta elkarrenganako errespetuan oinarritzen da.

2.4.4.1. Ekintza tutoriala

Ikaslearen ikaskuntza prozesua eta hazkundea optimizatzea du helburu, laguntza pertsonal eta akademikotik abiatuta. Elkarrizketak etengabeko jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetzen du taldean hazten eta integratzen laguntzeko. Ikasle bakoitzarekin irakasle-tutore bat dago, bere hezkuntza prozesuaren bilakaera modu pertsonalizatuan jarraitzen duena. Elkarrekin, lanari buruz hausnartzen dute eta plan pertsonaletan oinarritutako ikaskuntza helburuak finkatzen dituzte.

Tutoretza indibidualizatuen bidez, baita taldeko tutoretzen bidez ere, ikasle bakoitzaren behaketa sistematikoaren bidez ere, ikasgelan pertsonen arteko harremanak, talde-sentimendua eta laguntasuna bultzatzen dituen klima positiboa sortzeko lan egiten du tutoreak. Horrez gain, kotutoretza edo berdinen arteko tutoretza sustatzen da, ikasleen arteko sostengua, elkar laguntza, elkarbizitza eta garapen pertsonal eta soziala indartzeko.

Tutoretza-ekintza plan bat izatea funtsezko elementua bihurtzen da laguntza sistematikoa eta pertsonalizatua eskaintzeko.

¹⁶ P.E.odn, n. 18.

2.4.5. Ebaluazio pertsonalizatua

Eredu pedagogikoak oinarrizko eginkizuna ematen dio ebaluazioari ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuaren oinarrizko osagai arautzaile gisa. Beraz, ikaskuntza berriak hasteko, gabeziak gainditzeko eta proposatutako helburuak lortzeko erabakiak denbora errealean hartzeko motor gisa balio duten sistema eragileak eta eraginkorrak garatzen ditu. Horretarako, prozesu osoan zehar, hezkuntza prozesua osatzen duten elementu desberdinak ebaluatzen dira: ikasleen ikaskuntza eta espero diren emaitzak, errendimendua eta inplikazioa, eta koherentzia helburuen, edukien, metodologiaren eta erabilitako baliabideen artean.

Ebaluazioa ikasteko estilo desberdinetara egokitutako estrategiak aplikatuta planifikatzen da. Ezarritako irizpideen arabera egiten da eta, ahal den neurrian, ikasleek ezagutzen dituztenak. Horrez gain, autoebaluazioa sustatzen da, ikasleak bere aurrerapena aitortu eta bere ikaskuntza prozesua balioetsi dezan, eta baita ikaskideen arteko koebaluazioa ere.

Ebaluazioak, bere xedearen arabera, modalitate eta asmo desberdinak ditu:

- **Ebaluazio diagnostikoa edo iragarlea:** aldi baten hasieran egiten da ikaslearen abiapuntuaren diagnostikoa izateko. Haren ezaugarriak eta gaitasun pertsonalak aztertzen ditu. Ezagutzamaile, esperientziak eta interesak identifikatzen laguntzen du. Era berean, indarguneak ezagutzea eta ahulguneak lantzea du xede.
- **Ebaluazio formatiboa eta formatzailea:** ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan zehar egiten da modu jarrai eta progresiboan. Ikaslearen errendimenduaren inguruko ebidentziak bilatzean oinarritzen da, irakasleak eta ikasleak interpretatzen dutena. Honek aukera ematen du uneko

“ ikaskuntza-
irakaskuntza
prozesuaren
erregulatzaile
garrantzitsu den
ebaluazioa

ezagutzen eta espero diren helburuen arteko aldea ixteko beharrezkoak diren ekintzak zehazteko. Ebaluazio mota honetako ezagutzak ikaskuntza ingurunearen norabidea eta praktika modelatzeko erabiltzen dira. Beraz, informazioa biltzea, prozesuak ebaluatzea, aurrerapenak identifikatzea, zailtasun edo akatsak jakitea, une oro beharrezko laguntza eskaintzea eta ikaskuntza hobetzen duten aldaketak edo doikuntzak egiteko erabakiak hartzea ahalbidetzen du.

■ **Ebaluazio sumatiboa edo errendimendu-ebaluazioa:** lortutako maila, azken emaitza eta tresnen eraginkortasuna egiaztatzen dira. Errendimenduak, aurreikusitako helburuekin eta azken emaitzekin lotuta, ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboekin egiten diren prozesu sistematiko eta periodikoen arabera ebaluatzen dira.

Ikuspegi honetatik, ebaluazioa ez da emaitzak egiaztatzen mugatzen, baizik eta ikaskuntza berriaren abiapuntua bihurtzen da, non akatsa onartzen eta kontuan hartzen den eta feedback puntualak, bideratuak, askotarikoak eta deskribatzaileak xedea betetzen duen. Honen helburua ikasleei ikasten jarraitzea ahalbidetuko dieten prozesu, aurrerapen eta errendimenduei buruz orientatzea da. Ebaluazioak hainbat teknika, tresna eta estrategia ditu, edukiak menderatzeari, trebetasunak lortzearen egiaztapena eta ikasleen hezkuntza prozesuaren fase desberdinetan ikasteko jarrerei buruzko informazioa biltzea ahalbidetuko dutenak. Besteak beste, haien eraginkortasuna dela eta, hauek nabarmentzen dira: ahozko eta idatzizko probak, behaketa prozesuak, elkarrizketak eta tutoretzak, aurkezpenak eta eztabaidak, proba normalizatuak, exekuzio edo errendimendu probak, zorroak edo ikaskuntza-aldizkariak, problemen ebazpena eta kontzeptu-mapak. Rol berezia ematen zaie errubrikei, adierazle behatzaileak ebaluatzen eta lorpenean maila eta ñabardurak ezartzeko eskaintzen duten aukera dela eta.

Ebaluazio-prozesu hauetan, familiarekin etengabeko komunikazioak oinarrizko eginkizuna hartzen du ebaluazio eta sustapen irizpideak partekatzeo, herrialde bakoitzean ezarritako arauen arabera. Prozesuaren, aurrerapenaren eta errendimenduaren inguruko trukeak eta elkarrizketak eta, azkenik, ikaslearen emaitzen inguruan, lorpenengatik zoriondu eta hobetzeko arlo posibleak zeintzuk diren finkatuko dute.

2.4.6. Ikasleen talentuaren garapen optimoa

2.4.6.1. Talentua garatzeko Ikastetxeak

Gure Eredu Pedagogikoa ikasle bakoitzaren talentuaren garapenarekin konprometituta dago, ikuspegi sistemiko batetik, esponenzialki hazten diren gaitasun, ahalmen eta trebetasun sorta gisa ulertuz.

Hori dela eta, ezagutza erreproduzitzeko eredu batetik aldentzen den hezkuntza aukeratzen da, non ikaskuntza itxia eta pasiboa den, eta ikasteko eredu ireki eta aktibo baterantz jotzen du, non irudimena, jakin-mina eta kontsulta hobetzen diren, norbere buruari galderak egitea eta ideiak partekatzea, erronkak hartzea eta erosotasun gunetik irtetea ekar dezaketen ondorioak lortzeko.

Talentua garatu ahal izateko, ezinbestekoa da irakasleek ikaslearen gaitasunak, haien identifikazioari jarraikiz, lantzen dituzten eta ahultasunak antzematea ahalbidetzen duten programak abian jartzea, haien garapen pertsonala erraztuz. Ondoren, esku-hartze ildoak abiatuko dira ikasle eta talde bakoitzarentzako plan pertsonalizatuetatik abiatuta. Gai eta proposamen desberdinetan potentziala probatzen duten aukera anitzak eskaintzen dira,

“ irakaskuntza
eredu irekia
eta aktiboa non
imaginazioa,
kuriositatea
eta ikerketa
sustatzen diren

laneko ingurune kooperatiboan eta taldekatze malguekin ikasketa autonomoa lortzeko asmoz, non komunikazio, lankidetzeta eta parte hartze gaitasunak garatzen diren eta lanak inplikazioa, lidergoa, motibazioa, pentsamendu kritikoa eta sortzailea sortzen duen.

2.4.6.2. Ikasketa plan pertsonalak

Ikasle bakoitzak, bere irakasle-tutorearekin batera, lortu beharreko helburuak zehaztu eta beharrezko bitartekoak eta baliabideak zehazten dituen Ikasketa plan pertsonala diseinatzen du bere ezaugarri, behar eta kezkei egokitutako jarduera eta ekintzen programa konfiguratzeko. Azken helburua bere ikaskuntzaren pertsonalizazioa da, bere indarguneak garatzean oinarritutako erronka handiei aurre egiteko eta zailtasunak modu onenean aurre egiteko gai den pertsona bihurtzeko. Gure proposamenean, esfortzuaren, erantzukizunaren eta norberaren hobekuntzaren balioa nahi diren helburuak lortzeko oinarritzko ezaugarriak dira.

2.4.7. Inklusioa eta aniztasunarekiko arreta

Gaur egun aniztasuna errealitate da gure Ikastetxe guztietan; aberastasun gisa ulertuta, elkarrengandik ikasteko aukera ematen du. Elkarbizitza eta elkarrekiko errespetua sustatuz, elkarrekin ibiltzera eta elkarlanean aritzera daramaten ekimen eta erabakien trukea sustatzen da. Desberdintasunak sinergiak sortzen dituzten eta gaitasun pertsonal desberdinak garatzea ahalbidetzen duten plan indibidualizatuen bidez kudeatzen dira.

Irakasleak gaitasunen heterogeneotasuna kontuan hartzen du, akademikoa baino zentzu zabalago batetik ulertuta, ikasle bakoitzaren ezagutza pertsonalaren, emozioen, sentimenduen eta sinesmenen garrantzia kontuan hartzen duen erantzuna emateko.

Irakaslegoaren lana onartzen duen aniztasunari arreta emateko instantzia espezializatua edukitzea, ikasle bakoitzaren prestakuntza integrala bermatzeko eta irakaskuntza prozesuak behar dutenen ezaugarrietara eta beharretara egokitzeko laguntza da. Gainera, ikasleen hezkuntza, psikopedagogia eta lanbide orientazioan parte hartzen du eta tutoreekin, gainerako irakasleekin eta familiekin lankidetzan aritzen da.

2.4.7.1. Ikasleen taldekatzea

Ikasleak taldekatzeko irizpideek malguak izan behar dute ikasle motari eta egin beharreko jarduera helburuari eta motari erantzuteko. Taldekatze tipologia anitza sustatzen da: banakako edo binakako lana, talde handietan, talde heterogeneo finkoetan, talde malgu homogeen edo heterogeneoetan, klase barruko taldeetan edota ikastaroen artean adin desberdinetako ikasleekin errendimendu mailaren arabera. Honek norbere behar eta interesen arabera, ikasleen gaitasun, trebetasun edo errendimendu mailan lan egitea ahalbidetzen du. Taldekatze barietate honek egokitzapena eta curriculumaren malgutasun bultzatzen du, bai eta motibazioa, sormena eta ikasteko interesa hobetzea ere. Horrez gain, eta oinarrizko alderdi gisa, pertsonen arteko trebetasunen eta jarrerren lana errazten du, hala nola errespetua, tolerantzia, erantzukizuna, lankidetzeta, zorroztasuna, iraunkortasuna eta autonomia.

2.4.7.2. Espazioen antolaketa

Hezkuntza espazioak diseinatzeak eta antolatzeak eragin zuzena du ikasleen ikaskuntzan, baita irakaslearen eta ikaslearen eta berdinen arteko harreman afektibo, positibo eta aberasgarria hobetzeko ere. Gure ikastetxeetan zereginaren izaerara egokitzen diren eta lan kualitatiboa, curriculumaren garapena, bizikidetzeta giroa, ordena-ohiturak eta kontzentrazioa bultzatzen dituzten

“ *Elkarbizitza eta elkarrekiko errespetua sustatuz, elkarrekin ibiltzera eta elkarlanean aritzera daramaten ekimen eta erabakien trukea sustatzen da*

espazio bizigarriak, erabilera anitzekoak, zabalak, irekiak eta atseginak sortzea aukeratzen dugu.

2.4.7.3. Denboraren antolaketa

Denboraren banaketa malgua da eta ikaslearen ezaugarri pertsonaletara eta ikasgelan aurkezten diren proposamen motetara egokitzen da. Irakaslea arduratzen da denbora kudeatzeaz, proposamenak ikasleen gaitasun, motibazio, behar eta asmoen arabera dibertsifikatuz.

2.4.7.4. Material eta baliabide didaktikoen antolaketa

Material didaktikoen eta baliabide fisiko eta birtualen hautaketa hezkuntza testuinguruari eta ikasleen ezaugarriari lotuta egiten da. Honek aniztasun konkretu eta errealari erantzutea ahalbidetzen du ikasteko eta irakasteko une desberdinetan, baita planifikazioari, exekuzioari eta ebaluazioari ere. Ahal denean, estrategia eta baliabideen hautaketa irakaslearen eta ikaslearen artean kudeatuko eta diseinatuko da, azken honi ahotsa eta protagonismoa emanez.

2.4.7.5. Curriculumaren malgutasuna

Ikuspegi integratzaile batetik, maila askotako ikaskuntza malguagoa, aldaketetarako eta etengabe aldatzeko irekia sustatzen duena, irakasleak ikasle bakoitza laguntzen du bere ikaskuntzan erritmoak eta garapen-etapak errespetatuz, monotonia edo interes-galera ekiditeko. Edukietan, abiaduran eta erronka mailan curriculum uniforme eta berdina saihesten da, doikuntza optimoa eta ikasketa sakona, esperientziala eta sortzailea ahalbidetzeko. Ikuspegi honek desberdintasunen arreta errazten du eta ikasle bakoitzak

bere ibilbidea jarraitzea ahalbidetzen du, horretarako egindako programazio eta ikaskuntza modalitateetan oinarrituta eta bere progresioaren, gaitasunen eta errendimenduaren arabera.

Ikasgelan egindako lana egokituta egon behar da bai edukian, bai aurkezteko abiaduran. Curriculumak garatzen den erritmoa ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen da, eta berarentzat edo taldearen erritmoaren arabera zehaztu daiteke. Edukiaren aldaketak abstrakzio, konplexutasun eta barietatearen arabera alda daitezke. Programazio unitateak irakasle bakoitzak ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazio jarduerak planifikatzeko prestatzen dituen ikasgelako curriculum-dokumentuak dira, eta zertarako, zer, nola eta noiz irakasten eta ebaluatzen den galderei erantzuna emateko. Beraz, ikaslea prozesuaren erdigunean kokatzen da.

Programazio akademikoko unitateak diseinatzeko, herrialde bakoitzeko erakunde arautzaileek agindutako politikak, programak, jarraibideak, gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak kontsultatu eta kontuan hartzen dira. Unitateak malguak izango dira, horrela ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesuan sortzen diren behar desberdinetara egokituz.

2.4.8. Ikasten ikasteko metodologia aktiboak

Irakaskuntza eta ikaskuntza pertsonalizatuak metodologia aktiboak, operatiboak, parte-hartzaileak eta kooperatiboak erabiltzea eskatzen du, ikaskuntza iraunkorrako, sakonagoak, esanguratsuagoak eta transferigarriak eskaintzen dituztenak. Ikaslearen eta irakaslearen arteko etengabeko elkarriketak ikasleak dituen aukerak ezagutzea ahalbidetzen duela uste dugu, nola ikasten duen deskubritzea eta haien garapenaren aldeko prozesuak identifikatzea, ikaskuntza jarduera dinamiko, benetako eta garrantzitsu bihurtuz.

“ *maila askotako ikaskuntza malguagoa, aldaketetarako eta etengabe aldatzeko irekia sustatzen du*

Horregatik, hautaketa metodologikoan Bloomen taxonomiaren arabera aurreikusitako helburu kognitiboen mailen arabera irizpideak eta aldagaiak jarraitzen dira, metodoak ikaskuntza sustatzeko duen gaitasunaren arabera, ikasleek ikasketekiko duten kontrol mailaren arabera, jardueran parte hartzen duten pertsona kopuruaren arabera, eta ekimen desberdinak garatzeko beharrezkoak diren baliabide eta espazioen arabera. Metodologiak hautatzea, hartzea eta ezartzea ez da prozedura berriak asmatzean oinarritzen, baizik eta oinarri pedagogikoa dutenak hautatzean, ikasgelan lana errazten dutenak eta irakaslearen eginkizuna errazten dutenak.

Irakasleak, lider gisa, irudimenaren pedagogia ezartzen du, ikasleek ikasten ikasten dutenean, autoerregulazioa eta beren lanarekiko konpromisoa sustatuz. Irakasleak esperotako emaitzekin bat datozen esperientziak eta ikaskuntza jarduerak planifikatu eta diseinatzen ditu, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak konbinatuz. Honela, bakoitza eguneroko hainbat egoera eta testuingurutan integratu, erlazionatu eta aplikatzeko gai izango da, ikasgela testuingurura irekiz eta bertan esku hartzeko aukerarekin.

Ikasleei goi mailako trebetasun kognitiboak garatzeko aukerak eskaintzen zaizkie esperimentazioan eta ikerketan oinarritutako planteamenduetatik abiatuta, haien inplikazioa behar duten proiektu konplexu eta garrantzitsuetan kokatuta. Autonomiaren garapena, argudiatzea, lankidetzeta eta erantzunak bilatzea, baita originaltasuna eta pentsamendu dibergentea hobetzea sustatzen dira.

2.4.8.1. Ikaslearengan eta gaitasunen garapenean oinarritutako teknika didaktikoa

Gure Ereduak metodologia ulertzen du ikaskuntza esanguratsua eta konpetentziala lortzeko ibilgailu gisa, ezagutzari eta edukiei uko egin gabe. Uste dugu ez dagoela metodo hoberik, baizik eta momentu bakoitzerako egokiagoa eta garrantzitsuagoa dena. Horregatik, testuinguruan jarrita, sistematikoki eta nahita diseinatutako esperientziak ahalbidetzen dituzten metodologia desberdinen konbinazioaren aldeko apustua egiten dugu. Hezkuntza malgutasunetik, ez dira metodologia didaktiko bakarrak edo egiaztapen zientifikorik ez dutenak erabiltzen, ezta Ikastetxe bakoitzaren esentzia eta helburuetatik urrun gaitzaketen baliabideak ere. Aniztasunaren eta malgutasun metodologikoaren garrantzia ikaskuntza-irakaskuntza prozesua planifikatu eta garatzerakoan ikasleen aniztasunari arreta emateko, jakin-min intelektuala eta sormena sustatzeko, eduki kurrikularrak indartzeko eta zabaltzeko eta ohiturak eta trebetasun sozialak indartzeko aldarrikapena defendatzen da. Pentsamendua pertzepzioaren eta arretaren, hausnarketaren eta oroimenaren, irudimenaren eta sormenaren, adierazpen sinbolikoaren eta praktikaren bidez irakastea da xedea, planifikazio trebetasunak, jarrera eta emozioen kudeaketa lantzeko.

Ikaskuntza prozesuan, **lan indibidualak eta autonomoak berebiziko** garrantzia hartzen du ikasitakoa finkatzeko jarduera gisa. Horrek jarduera praktikoak aztertzea eta burutzea barne hartzen du. Banakako lanak norberaren esfortzuaren ohiturak garatzen ditu, diziplina norberaren jarduerak planifikatzerakoan eta interes pertsonalak testuinguru akademikoaren barruan gauzatzeko aukera ematen du. Horretarako, ikasketa teknikak menderatzea, informazioaren antolaketa zuzena eta ikasketarako ingurune egokia behar dira.

“ *ikasleek ikasten ikasten dutenean, autoerregulazioa eta beren lanarekiko konpromisoa sustatuz*

Gure Ikastetxeetan kalitatezko aurkezpen-klaseak sustatzen ditugu, edukiak aurkezteko eta osatzeko, zalantzak konpontzeko eta ezagutza eta memorizazioa hobetzeko aukera ematen dutenak, arrazoiaren zerbitzura, eta ez datu ez-asimilatu edo integratu gabeen erreproduzio mekaniko soilaren zerbitzura. Ondo planifikatutako saioak izan behar dute, eraginkortasuna eta ikasleen arreta bilatzen dutenak, non galderak sortzen diren eta hausnarketa eragiten den. Ahozko aurkezpena baliabide teknologikoen laguntzarekin indartu eta osa daiteke. Saio hauek ikaslearen ikaskuntzaren zentro eta protagonista den papera azpimarratzen duten metodologia didaktikoekin konbinatzen dira, hura pertsona gisa indartuz, eta hausnarketa eta kritika eraikitzaileak bultzatuz.

Esanguratsua da partekatzea, Hezkuntza pertsonalizatuko estrategia didaktiko gisa, non ikasleak, bakarka edo taldean, gainerako ikaskideei ikasitakoa aurkezten dien. Kasu honetan, irakasleak gidari, animatzaile eta aholkulari rola du. Ikasleak bere bilaketaren sintesia erregistratzen eta taldean modu koherentean aurkezten ikasten du, behaketak eta akatsak positiboki bere gain hartuz. Ikaskideek errespetuz entzuten dute elkar, eztabaidatzen eta besteen ekarpenak baloratzen ikasten dute.

Gure Eredua eraldaketan eta konbinazio metodologikoan oinarritzen da, hurrengo arrazoiengatik:

- Ikasle bakoitzaren desberdintasun eta interes bereziei arreta ematek sortutako proposamenak txertatzeko aukera ematen du.
- Lanaren eta gaitasunaren eta diziplina anitzeko ebaluazioaren alde egiten du, gai kurrikularrak bizitza errealeko arazoekin eta une historiko honetako erronkekin lotuz.
- Maila anitzeko erantzuna ahalbidetzen du ikasteko modu desberdinak kontuan hartuta.

- IKTen bidez elkarreragina eta sormena sustatzen ditu.
- Ikasteko lekuen birmoldaketa sustatzen du.
- Irakaskuntza eleanitza estimulaten du.
- Klima soziala eta ikasgelako harremanak hobetzen ditu.
- Familien eta Hezkuntza-komunitateko gainerako kideen parte-hartzea sustatzen du.

2.4.8.2. Erabilitako hainbat metodologia aktiboren funtsezko alderdiak

2.4.8.2.1. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (POI)

Testuinguruko irakaskuntza metodoa da, ikuspegi globalizatzailea eta diziplinartekoa duena. Ikasleek intereseko gai bati buruzko ezagutzak eta trebetasunak eskuratzen dituzte sormenezko, partekatutako testuinguruko ikerketetatik edo azterketetatik, azken produktuaren sorrerarekin. Ikasleei beren interesen inguruko galderak egiteko, beren ezagutzak praktikan jartzeko, beren ikaskuntza eraikitzeke dituzten gaitasunak garatzeko eta arazoak konpontzeko eta ideiak komunikatzeko aukera ematen die. Prozesu osoan zehar, ikasleek eginkizun aktiboa hartzen dute, eta irakasleen eta Komunitateko beste kide batzuen behatzaile, dinamizatzaile eta administratzaile rolaekin batera, burutzen ari diren lanaren, jardueren eta gainditu beharreko zailtasunen inguruan hausnartzen dute. POIk kalitatezko lana sustatzen du eta prozesu osoaren eta azken produktuaren ebaluazio kualitatiboa eskatzen du.

2.4.8.2.2. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza (AOI)

Ikasleei arazo-egoera esanguratsu bat aurkezten die, benetakoa edo fikziozkoa, irakasleek normalean diseinatutako arazoak aurkeztean oinarrituta, ezagutza berriak eskuratu eta integratzeko modu gisa. Honek ikaslearengan oinarritutako ikaskuntza ahalbidetzen du eta ezagutzaren integrazioa sustatzen du, ikasteko mailaren arabera ebaluatu beharreko ezagutzak arrazoitzeko eta aplikatzeko gaitasuna probatuz. Ikasleak, bakarka edo talde txikietan, arazoa konpondu behar du, diziplina edo arlo kurrikular desberdinak estal ditzakeena, ezarritako pausoei jarraituz. Irakasleak bete beharreko prozesuaren gidari, tutore edo aholkulari papera eskuratzen du.

2.4.8.2.3. Erronketan oinarritutako ikaskuntza (EOI)

Ikuspegi pedagogiko honek ikaslea bere ingurunearekin lotutako arazo egoera ireki, erreala eta esanguratsu batean inplikatzeko du, irtenbide zehatz eta erreal bat bilatuz konpondu behar duena. Ikasleak, edo taldeak, aurre egin nahi dion erronka zehazten du eta arrakasta lortzen duenean goi mailako erronka berri batera pasa daiteke.

Metodologia honi esker, ikasleak ikasten ari diren gaien ezagutza sakonagoa garatu dezake, baita informazioaren azterketarekin, aukera desberdinak aukeratzearekin, etengabeko hobekuntza pertsonalarekin lotutako jarrerarekin, arriskuak hartzeko gaitasunarekin, frustrazioarekiko tolerantziarekin edo norberaren trebetasunetan konfiantza izateari lotutako gaitasunak ere. Irakasleak ikasleen lana laguntzen du dinamizatzaile roletik eta agertzen diren kezkei eta galderei erantzunez.

2.4.8.2.4. Ikaskuntza esperientziala

Ikuspegi honetan, esperientziak funtsezko papera du ikaskuntza prozesuan. Ezagutzak esperientziak eragindako eraldaketaren bidez sortzen den ideian oinarritzen da. David Kolben zikloaren arabera, ikaskuntza eraginkorrerako lau fase egon behar dira:

- **Zentzumen-esperientzia konkretu eta berria:** ikasleen emozioekin lotzen diren esperientzia berriak eskaintzen dira.
- **Behaketa islatzailea:** esperientzia hainbat ikuspegitatik aztertzen da eta egindakoaren eta emaitzen artean loturak egiten dira. Behatutakoaz eta bizitakoaz hausnartzen da.
- **Kontzeptualizazio abstraktua:** esperientziatik ikasten da, oinarritutako behaketak eta ondorioak sortzen dira, testuinguru desberdinetan aplikatu daitezkeenak.
- **Esperimentazio aktiboa:** behaketak eta ondorioak praktikan jartzen dira haien baliozkotasuna egiaztatzeko; ikusitako esperientziaren antzeko arazoak konpontzeko gida gisa balio dute. Ikaskuntza berria gertuen dagoen errealitatera eta beste testuinguru batzuetara transferitzen da.

Irakasleak kasuak aztertuz edo simulazio ereduez esperientziak egituratzen ditu, hezkuntza helburuak eta ikasleen eta taldeen ezaugarriak kontuan hartuta, ikaskuntza indartzeko helburuarekin. Ikasleari trebetasunen garapenean laguntzen zaio. Besteak beste, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, talde-lana eta negoziazioa.

2.4.8.2.5. Diseinu-pentsamendua (Design Thinking)

Arazoak konpontzeko diseinu sortzailean oinarritutako metodologia da. Honako prozesuak hartzen ditu kontuan: behatu, ulertu, asmatu eta prototipoa egin. Helburua ikasle bakoitzaren sormen gaitasuna garatzea da.

Irakasleak lana gidatzen du ikasleei ideia-jasa egitera eta aldagai desberdinak aztertzeraz bultzatuz. Lankidetzaz eta iritzien errespetuaz sustatzen ditu. Diseinu pentsamenduaren prozesuak aplikatuta konpondu beharreko erronkak planteatzen ditu.

2.4.8.2.6. Pentsamendu bisuala (Visual Thinking)

Hau garatzeak elementu grafikoak erabiliz modu eraginkorrean pentsatzen ikastea bilatzen du, ideiak eta kontzeptuak irudikatze eta mapa mentalak garatzeko. Hauek irtenbideak deskubritzen, prozesuak simulatzen eta ideia berriak sortzen laguntzen dute. Irudi bisualek garunean eragina dute, eta xehetasun gehiago lortzeko, pentsamenduak argitzeko, ulermena indartzeko nahiz informazioa azkarrago prozesatzeko aukera ematen digute.

Irakasleak pentsamendu bisuala aplikatu daitezkeen ikasteko esperientziak proposatzen ditu, eta edukien irudikapen grafikoko estrategia metodologikoak errazten ditu, ikasleak pentsatzen duena eta bereganatzen duena komunikatu dezan, irudien bidez eta idatziz.

2.4.8.2.7. Ikaskuntza kooperatiboa (IK)

Ikaskuntza kooperatiboak ikasteko elkarlanean aritzeko eta elkarlanean aritzen ikasteko aukera ematen du. Ikasleek talde txiki, egonkor eta heterogeneoetan egiten dute lan helburu komunak lortzeko, elkarri lagunduz eta jarduera desberdinak burututa partekatuz. Taldekideen arteko mendekotasun positiboa eta elkarrekin estimulagarriak sustatzen dira. Banakako eta taldeko erantzukizuna dakar, eta pertsonen arteko eta taldeko gaitasunak ezagutzea eta lantzea. Etengabeko ebaluazioak taldearen funtzionamendua ebaluatzea ahalbidetzen du, aurreikusitako helburuak lortzen badira, bai eta esfortzua eta banakako eta

taldeko lana balioestea ere. IK-k hiru esku-hartze arlo ditu: talde-kohesioa, egitura eta jarduera kooperatiboen erabilera ikasleei taldean nola lan egin modu esplizitu eta sistematikoan erakusteko, talde planak, talde dinamika, etab. Irakasleak dinamizatzailerola eskuratzen du eta ikasleari protagonismoa ematen dio.

2.4.8.2.8. STEAM

Diziplina desberdinen integrazioan oinarrituta dago: Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematika. Ikuspegi honek trebetasunak garatzeko eta testuinguruko ikaskuntza esanguratsua jorratzeko aukera ematen du. Ikaslearen pentsamendu zientifikoa, kuantitatiboa, bisoespaziala, malgua eta sortzailea hobetzen du, berritzeko elementu garrantzitsuak. Ikuspegi honi esker, edozein adin eta mailatan gaitasun analitikoak, konponbideak eta talde lana lantzeko gaitasuna garatu daiteke. Irakasleak eginez ikasten du eta aldi berean alde praktikoa teoriarekin uztartzen du, metodologia desberdinak erabiliz.

2.4.8.2.9. Talde-lana

Ikasgeletan ikasleari taldean lan egiteko aukera eskaintzen zaio, banakako eta baterako jarduerak burutuz helburuak lortzeko. Kideen arteko interdependentzia positiboa motibatzen da eta jarrera irekiak sustatzen dira, hala nola jakin-mina eta ideia pertsonalak besteekin alderatzeko interesa, arreta eta begirunetik abiatuta. Lan mota honek ikasleei elkarri laguntzeko, sortzeko, eztabaidatzeko eta konponbide komunak emateko aukerak eskaintzen dizkie trebetasun sozialak garatuz eta kide izateko sentimendua sortuz.

Helburuak lortzea bermatzeko, irakasleak aldian-aldiko jarraipena egin behar du, kide bakoitzak taldean duen lekua errazago aurki

dezan. Kontua ez da kide guztiek zeregin guztiak egitea, baizik eta denek zeregin garrantzitsuak egitea eta, beraz, ikasitako ikasketekin etekina ateratzea. Egindako zeregina ebaluatzeko, irizpide egokiak ezarri behar dira, kide bakoitzak egindako jarduera-mailari eta azken emaitzaren kalitateari buruzko informazioa lortzeko.

2.4.8.2.10. Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza (POI)

Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza ikaslearengan oinarritutako metodo aktiboa da, pentsamendu kritikoa eta sortzailea lehenesten duena. Pentsamolde altuko formak lantzen ditu, hala nola erabakiak hartzeko, konparazioa, kontrastea, iragarpena, baita pentsamendu errutina garrantzitsuak ere, besteak beste arretaz entzutea, ideiak onartzeko edo baztertzeko arrazoiak agerian uztea, etab., ikasten ari diren edukiei buruz hausnartzeko helburuarekin.

Irakaslea ikasleei erronka handiko helburuak gidatzeaz eta aurkezteaz arduratzen da, pentsamendu trebetasun handiagoak erabiltzeko gai izan daitezen, edukien ikaskuntzan aplikatuta, bitzta osoan zehar erabili ahal izateko, beraien pentsamendua hausnarketa prozedurekin gidatzeaz gain.

2.4.8.2.11. Ikaskuntza-laborategiak

Ikaskuntza-laborategiak arlo desberdinekin lotutako ikasteko espazioak dira, non ikasleak trebetasunak garatzen dituen ikaskuntza aktiboa eta sortzailea lortzeko. Esperimentazioa, ulermena, lankidetzeta eta baliabideen ariketa bultzatzen dituzten interesetatik hurbil dauden jarduerak egitean oinarritzen da. Gaia ikasturtean zehar alda daiteke, baita antolaketa ere.

Laborategietan, ikasketa pertsonalizatuak garrantzi handia hartzen du ikasleak aurrera egin ahala eta bere ezaugarriengatik ahal duen garapen eta sakontasun maila lortuz, bere gaitasunak bere aukeren, motibazioaren eta interesen arabera indartuz eta zabalduz. Ikaskuntza-laborategitzat hartzen dira, besteak beste, robotika, adierazpena, jolas dramatikoak, eskulanak eta ipuin-kontaketa.

2.4.8.2.12. Mugimenduan oinarritutako ikaskuntza

Mugimenduak hezkuntza estrategia gisa ikaslearen garapen kognitiboa, egoera emozionala eta osasuna bultzatzen ditu. Edozein jardura kontzentrazio eta arretaz burutzeko trebetasunak ematen dituen memoria-motorra eraikitzen laguntzen du. Mugimendua klaseetan sartzeko da muskuluak aktibatzeke atsedenaldira hartuz, posizioz aldatzea edo ikasgelan mugitzea dakarten jolasak eginez. Ikasgelaz aldatzea, irakaskuntza pertsonalizatua hain ohikoa dena, jardura berria hasteko kontzentrazioa eta motibazioa eragiten duen mugimendu modu bat da.

2.4.8.2.13. Gamifikazioa

Jolasa ikasteko elementu motibatzaile gisa erabiltzen duen metodologia da. Jardura ludikoak izanik, interesa eta ikasteko gogoak pizten dituzte. Kontzentrazioa eta jokoaren jarrerak eta balioak garatzen laguntzen du. Era berean, berehalako eta etengabeko iritzia ematen du, ikaskuntza azkarragoa eta eraginkorragoa izan dadin.

2.4.8.2.14. Zerbitzu-ikaskuntza

Estrategia metodologiko honen helburu nagusia esperientziak gauzatzean oinarritzen da, normalean Ikastetxetik kanpo, premia edo arrisku egoerak identifikatzea ahalbidetzen dutenak eta horiei erantzuteko komunitatearekin konpromisoa hartzea. Horretarako, komunitatearen eta testuinguruaren arazoak Ikastetxean eta kanpoan egiten den hezkuntza-lanarekin lotzen dira, horrek erantzukizun soziala eta herritarra bultzatzen baitu, baita elkartasun, zerbitzu eta ahaleginaren balioak ere, mundu hobea eraikitzeko asmoz.

2.4.8.2.15. Kontuan hartu beharreko beste metodologia batzuk

Jarraian, gure ikasgeletan erabilitako beste ikasketa metodologia edo teknika batzuk zerrendatzen dira, aurrez deskribatutakoen modu berean, ikaskuntza autonomia, aktiboa eta esanguratsua sustatzea ahalbidetzen dutenak, ikaslearen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea eta pertsonalizazioa maila altua. Besteak beste:

- Estimulazio goiztiarra
- Lan-txokoak edo ikasteko inguruneak
- Ikaskuntza-paisaiak
- Talde interaktiboak
- Kasu-metodoa
- Klase alderantzikatua (Flipped Classroom)
- Zeregin integratuak



3

Ikastetxeetan eskaintzen den zenbait proiektu

Mariaren Lagundia Ikastetxeek eskaintzen duten hezkuntza ikasgelatik eta ezarritakoa baino haratago doa¹⁷, pertsonaren garapen osoaren bila. Proiektu hauek ez dira finkoak; ikasleen beharren eta testuinguruaren arabekoak dira. Jarraian azaltzen direnak horietako batzuen lagin txiki bat dira, bere errealitatearen arabera, Ikastetxe bakoitzak bereganatu, osatu eta aberastuko duena.

3.1. Kulturarteko Heziketa

Gure gizarteak gero eta anitzagoak dira eta errealitate hori gure Ikastetxe askotan islatzen da. Horregatik, beharrezkoa da ezagutzea kulturartekootasunean trebatzeak duen garrantzia bizikidetzara, askatasuna, justizia, ekitatea indartzeko eta munduaren ikuspegi irekia eta errespetuzkoa eskaintzeko. Ezinbestekoa da mundu plural honen ikuspegi bat aurkeztea, pertsona bakoitzaren balioa ezagutzeko eta kontuan hartzeko aukera ematen duena: bere duintasuna, bere historia, bere politika, bere kultura, hizkuntza, erlijioa eta tradizioa. Kultur trukeko eta hizkuntza eta tradizio desberdinak ikasteko aukerak harremanak errazten dituzten eta mundu inklusiboago baten alde lan egiteko moduak dira.

3. 2. Proiektu linguistikoa eta eleanitza

Ikastetxeek ikaskuntza eredu eleaniztuna eta kultur anitza dute hizkuntza eta kultura desberdinak ezagutzeko helburuarekin, eta horrek ikaslea sozialki eta profesionalki garatzea ahalbidetzen du. Gaur egungo gizartean hizkuntza bat baino gehiago jakitea ezinbestekoa da eta, beraz, hizkuntza gaitasunen garapena lehentasuna da Ikastetxeetan. Lan hau ez dago hizkuntza bakar baten edo arlo bakar baten erabilerari mugatuta, baizik eta

¹⁷ P.E. O.D.N., n.14.

ikaskuntza espazio desberdinetan sustatzen da. Aukera honek ikaskuntza komunikatiboa antzeko beste egoera batzuetara transferitzearen alde egiten du.

Ikasleen komunikazio gaitasuna indartzen da, aurkezteko moduak, formatuak eta euskarriak aniztasunean hizkuntzaren erabilera egokira eta zuzenera bideratutako esperientziak bizitzea ahalbidetuz. IKTak eta bestelako baliabideak erabiltzeak ikasleari ekintzetan ikasteko aukera ematen dio, batez ere entzunez eta hitz eginez. Metodologia aktiboak aliatu bikain bilakatzen dira aurreikusitako helburuak lortzeko. Gainera, hizkuntza berriak ikasteak mundura irekitzea errazten du, eta aniztasunaren aberastasunaren esperientzia hobetzen.

3.3. Hezkuntza emozionalaren proiektua

Hezkuntza emozionala gure hezkuntza-ekintzaren bizkarrezur bihurtzen da, adimena eta sentimenduak, bihotza eta burua orekatu nahi dituen eta gaitasun emozionalen garapena sustatzen duen ikasle bakoitzaren prestakuntza integralaren funtsezko elementu gisa sustatzen duen ikaskuntza sustatuz.

Lana hazkunde pertsonal egokian oinarritzen da, egonkortasun emozionala bizi baita ikasleen gaitasunen hedapena bultzatzen duena eta norbanakoen eta pertsonen arteko gatazkak prebenitzeko tresna. Ikasleek emozioak kudeatzen ikasten dute haiek ulertuz, hitz eginez, haietaz jabetuz eta haiei erantzunez.

Ikasle bakoitzari bere burua eta besteak ezagutzen eta errespetatzen, bere emozioak adierazi eta kudeatzen, toleranteak izaten, bulkadak kontrolatzen eta ilusioa bideratzen jakiten laguntzen zaio. Ikasgelan komunikazioa eta elkarbizitza, elkar laguntza, ikuspuntu desberdinen adierazpena, enpatia eta elkartasuna bultzatzen dituzten espazioak daude.

3.4. Ekintzailtza eta gizarte berrikuntza proiektua

Ekintzailtza bizitzarekiko jarrera gisa ulertzen da, etorkizunari modu positiboan aurre egiteko eta eraldaketa sozialean lankidetzan aritzeko trebetasunak eta ezagutzak eskatzen dituena, berrikuntzan eta sormenean oinarrituta. Gure Ikastetxeetan, ikasleek jarrera ekintzailea eta trebetasunak, gaitasunak eta jarrerak garatzea, hala nola autonomia pertsonala, lidergoa eta enpatia, garatzeko aukera ematen duten ikasteko aukerak eskaintzen dira, erronka berriei baikortasunez eta erantzukizunez aurre egiteko gai izan daitezten.

Ikasleek parte hartzen ikasten dute eta modu desberdinean pentsatzera ausartzen dira beren proposamenak eta irtenbideak planteatzeko eta hobekuntza eta ongizate komuna bultzatzen dituzten proiektu pertsonalak eta taldekoak hasteko.

3.5. Eskolaz kanpoko jardueren eta ingurunearekiko harremanaren proiektua

Mariaren Lagundia Ikastetxeek eskolaz kanpoko hainbat jarduera eskaintzen dute, non ikasle bakoitza parte hartzera gonbidatzen den askatasun osoz: kristau fedea partekatzea, zentzu artistikoa lantzea, sortzeko eta ikertzeko gaitasuna sustatzea, naturaren gozamena eta zaintza sustatzea, kirola egitea, beste errealitateekin harremanetan jartzea, etab¹⁷.

Eredu pedagogiko unibertsal bat izateak sendotu eta aberastu egiten du Mariaren Lagundia Ikastetxeen Sarea, Ordenaren jatorritik nahi den batasuna: “Batu ditzagun indarrak beti berria den modu batean zerbitzatzeko”¹⁸.

¹⁷ Cfr. P.E.odn, 10. zk.

¹⁸ Historia de la Orden de la Compañía de María (I). Ediciones Lestonnac, Erroma 2012, 98. eta 99. orr.

Oharrak







Maria Gure Andrearen Lagundiaren Ordenak hurrengo herrialdeetan egiten du bere hezkuntza-misioa:

Frantzia	Kuba	Paraguai	Tantania
Espainia	Peru	Japon	Kamerun
Italia	Kolonbia	Filipinak	Kenia
Ingalaterra	Argentina	Vietnam	Haiti
Albania	Peru	Suitza	
Estatu Batuak	Txile	Kongoko	
Mexiko	Brasil	Errepublika	
Nikaragua	Bolibia	Demokratikoa	



Signa,
Eredu pedagogikoa